

Gradu Amaierako Lana  
Medikuntza Gradua

## **Zelula ez txikiko birikako minbiziaren estadio mugatu-aurreratuetan dauden pazienteen biziraupen orokorrean aldagai kliniko eta terapeutikoek duten eraginaren azterketa**

Dosi altuko erradioterapia erregimenek ( $>30\text{Gy}$ ) paziente hauen biziraupen  
orokorrean duten eraginaren analisia

Egilea  
**ANDER ARTEAGOITIA BOLUMBURU**  
Zuzendaria  
**JON CACICEDO FERNÁNDEZ DE BOBADILLA**

© 2019, Ander Arteagoitia Bolumburu

## **ESKERRAK**

Idatzi honen bitartez eskerrak eman nahi dizkio Jon Cacicedo Fernández de Bobadilla doktoreari, Gurutzetako Ospitale Unibertsitateko Onkologia Erradioterapiko Saileko mediku laguntzaileaz gain, nire gradu amaierako lanaren zuzendaria izan denari. Bere denbora libre, gogo eta jakituria musu truk emateagatik eta onkologiaren alorrean dudan interesa sustatu izanagatik. Horretaz gain, ikerketa proiektu baten oinarri eta garapena erakutsi eta horren parte izaten uzteagatik

# **AURKIBIDEA**

|   |           |
|---|-----------|
| <b>1. SARRERA.....</b>  | <b>1</b>  |
| 1.1. ZELULA EZ-TXIKIKO BIRIKAKO MINBIZIAREN GARRANTZIA.....   | 1         |
| 1.2. ZAINKETA ARINGARRIAK.....  | 1         |
| 1.3. ERRADIOTERAPIA PALIATIBOAREN ERAGINKORTASUNA.....  | 3         |
| <b>2. LANAREN HIPOTESI ETA HELBURUAK.....</b>   | <b>6</b>  |
| <b>3. MATERIAL ETA METODOAK.....</b>  | <b>6</b>  |
| 3.1 TRATAMENDU AURREKO PAZIENTEEN AZTERKETA.....  | 7         |
| 3.2 TRATAMENDUAN ZEHARREKO PAZIENTEEN JARRAIPENA.....   | 8         |
| 3.3. ATZERAKA BEGIRAKO BEHAKETA- IKERKUNTZARAKO<br>PAZIENTEEN HAUTAKETA.....                                      | 9         |
| 3.4. ANALISI ESTATISTIKOA.....  | 9         |
| <b>4. EMAITZAK.....</b>   | <b>10</b> |
| 4.1. PAZIENTEEN, TRATAMENDUAREN ETA EGINDAKO<br>JARRAIPENAREN EZAUGARRIAK.....                                    | 10        |
| 4.2. ALDAGAI TERAPEUTIKOEK ETA TRATAMENDUAREN<br>ALDAGAIEK BIZIRAUPENEAN DUTEN ERAGINAREN ANALISIA... <td>19</td> | 19        |
| <b>5. EZTABADA.....</b>   | <b>24</b> |
| <b>6. ONDORIOAK.....</b>  | <b>28</b> |
| <b>7. BIBLIOGRAFIA.....</b>   | <b>28</b> |
| <b>8. ERANSKINAK.....</b>   | <b>34</b> |

8.1. I. ERANSKINA.....34

8.2. II.ERANSKINA.....39

## **1. SARRERA**

### **1.1. ZELULA EZ-TXIKIKO BIRIKAKO MINBIZIAREN GARRANTZIA**

Birikako minbiziak, minbiziak eragindako lehen heriotza kausa izaten dirau; ia Ameriketako Estatu Batuetan (AEB) minbiziaren ondoriozko heriotzen %25-%26a eraginez (1). Testuinguru berean, birikako minbizi guztien %84a Zelula Ez-txikiko Birikako minbizi (ZETBM) azpimotak osatzen du, minbiziaren ondoriozko lehen heriotza kausa bilakatuz (1) (2).

Azpimota histologikoa kontuan hartu gabe, birika minbiziaren biziraupenaren medianak ez du aldaketa nabarmenik izan azken urteotan. Diagnostikatzen den unetik, biziraupenaren mediana 7 hilabeteko da (8-10 hilabete bitarteko kimioterapiarekin tratatzen baldin bada), eta diagnostiko osteko 5 urtetarako biziraupena %18koa da (3). Biziraupen datu apal hau hainbat faktoreren ondoriozkoa izan daiteke, baina birikako minbizien %16a soilik estadio mugatuak diagnostikatzeak berebiziko esangura du. Minbizia diagnostikatzen den estadioak biziraupenean duen eraginak aurreko arrazoiketa indartzen du: estadio mugatuak diagnostikatzen diren pazienteen 5 urterako biziraupena %56koa baita, aitzineko %16ko biziraupen datutik oso bestelakoa izanik (1).

Azkenik, birikako minbiziak pazienteen bizi-kalitatean duen eragin zuzena azpimarragarria da; diagnostiko unerako jada, paciente guztien %40ak tumoreak eragindako sintomak baititu. Tumoreak sintoma oso ezberdinak sor ditzake: arnasestua, eztula, hemoptisia, pneumonia errepijakorra edo min torazikoa besteak beste; gaixotasunaren poderioz larriagotzen direnak (4). Horretaz gain, birikako minbiziak tabakoarekin duen erlazio estua ezin dugu ahaztu. Tabakoak pazienteen osasun kardiobaskularrean duen eragin kaltegarriak, diagnostiko unean pazienteen ehuneko adierazgarri batek egoera funtzional kaxkarra (Performance Status bidez neurtua (PS)) izatea eragiten du (5).

### **1.2. ZAINKETA ARINGARRIAK**

Kirurgia da ZETBMaren tratamenduaren oinarria. Kirurgia ostean mediastinoko linfa-gongoilen afekzioa (pN2) duten paziente batzuei, kirurgia-osteko erradioterapia

(RT) eman ohi zaie kontsolidazio tratamendu bezala. Hala ere, tumorea erauzteko ezintasunagatik zein pazientearen beraren komorbilitateengatik kirurgia indikaziorik ez duten pazienteengan, aldi bereko kimioterapia eta erradioterapiaz osatutako tratamendua eskaintzen da, betiere sendatzeko intentzioarekin. Kasu honetan 60-70 Gy-ko guztizko dosia duten RT tratamenduak ezartzen zaizkie.

Hala eta guztiz ere, paziente askok diagnostiko unean duten egoera txarraren eta/edo estadio aurreratuaren ondorioz, ezin izango dute tratamendu sendagarrikin jaso, eta horien ordez zainketa aringarriak jasoko dituzte (6).

Orokorrean, zainketa aringarriak gaixotasun terminala duen pazientearen bizi kalitatea hobetza helburu duten zainketa multzo bezala definituak izan ohi dira. ZETBMaren zainketa aringarriak bi azpimultzotan sailka daitezke: alde batetik euskarri-zainketak eta beste aldetik, tumoreari zuzenduriko terapiak (7).

Euskarri zainketak, heriotza prozesuan zehar pazientearen ongizatea bermatzera zuzenduak dauden terapien multzoak dira. Zainketa horiek mota askotarikoak izan daitezke, horien baitan antibiotikoen, esteroideen, antiemetikoen, analgesikoen, transfusioen zein laguntza psikosozialaren bidez egindako zainketak baitaude (8). Tumoreari zuzenduriko terapiek baita ere pazientearen ongizatea lortzea dute helburu, baina zeharkako modu batean egiten dute; karga tumorala urritzeari esker pazienteen sintomen hobekuntza eraginez. Terapia hauen barnean daude intentzio paliatiboa duten kimioterapia eta erradioterapia (7).

Sendatzeko intentzioarekin eginiko tratamendua jasotzeko indikaziorik ez duten ZETBM estadio mugatu-aurreratu zein metastasikoen kasuan, lehen lerroko tratamendu paliatiboa kimioterapia da, euskarri zainketekin osatuta, betiere kimioterapia jasotzea ahalbidetzen dien egoera funtzionala duten pazienteengan (9). Kimioterapiak paziente hauen biziraupenean hobekuntza dakarrela frogatua dago, euskarri tratamenduekin bakarrik egindako tratamenduarekin alderatuta. Tratamendu kimioterapiko hau, platinotik eratorritako agentetan funtsatzen da. Hala eta guztiz ere, kimioterapiak pazienteen biziraupenaren hobekuntza subjetiboan duen eragin positiboari buruzko zalantza asko daude, baita ere biziraupen horretan zehar paziente horiek duten bizi kalitateari buruz, ikerketa ezberdinek emaitza oso aldakorrak lortu dituztelako (7).

### **1.3. ERRADIOTERAPIA PALIATIBOAREN ERAGINKORTASUNA**

ZETBMaren zainketa paliatiboen barnean erradioterapiak berebiziko garrantzia du, batez ere tumorearen hazkuntzarekin erlazionatutako sintomen tratamenduan. Sintoma horiek arinduz, gutxi gorabehera pazienteen heren batean bizi-kalitatearen hobekuntza lortzen du (10). Erradioterapiak ZETBMAk eragindako sintometan %50-%90eko murrizketa lortzen duela frogatu du; bereziki eraginkorra izanda hemoptisian (erantzun-tasa %75-%96), min torazikoan (%50-%80), eztulean (%50-%65) eta arnasestuan (%37-%60) (11). Eraginkortasun hori dela eta, birika minbizia duten pazienteen hiru laurdenetan erradioterapia preskibatzen da, gehienetan intentzio paliatiboarekin gainera (12).

Horretaz gain, Fairchild et al.-ek (13) burututako meta-analisiak oso emaitza adierazgarriak lortu zituen. Ikerketa horren esanetan, dosi altuak erabiltzen zitzuten erradioterapia eskema paliatiboek (10 frakziotan banatutako 35Gy) urte baterako biziraupenean %4-%5eko hobekuntza zekartzaten, sintomen kontrol orokor hobearekin batera. Hobekuntza hori, hala ere, esofagitisa pairatzeko arrisku hazkundearekin batera zetorren. Ikerketa horrek frogaturiko biziraupen etekin horrek eraginda, dosi zein frakzio gehiago (60 Gy, 48 Gy, 45 Gy) erabiltzen zitzuten erregimen terapeutikoen eraginkortasuna frogatu nahi zuten ikerketa ugari burutu ziren. Alabaina, ez zen biziraupenean edo sintomen kontrolean hobekuntzarik frogatu. Guzti horrek, profesionalen artean erradioterapia eskema erabiliena 10 frakziotan banatutako 30 Gy-koa izatea ekarri zuen berekin, betiere sintomen arintzearen eta erradiazioaren ondoriozko bigarren mailako efektuen arteko oreka lortzen saiatuz (14).

Aurrean aipatu bezala, erradioterapiaren erabilerak pazienteen bizi-kalitatea okertu dezaketen toxikotasuna eragin ditzake, eta kasurik larrienean, baita heriotza eragin ere. Lester et al.-ek(15) eginiko errebisio sistematiko batek, dosi altuko erradioterapia eskemak toxikotasun akutua sortzeko arriskuarekin erlazionatuta zeudela frogatu zuen, zehazki mielopatia eta esofagitisa sortzeko arriskuarekin.

Hori dela eta, dosi gutxiagoko zein azpi-frakzionatutako terapiek (erradioterapia dosi total gutxiago, pazientearentzako eroosoagoa izanez) sintomen arintzean duten eraginkortasuna aztertzeko zenbait ikerketa egin dira. Ikerketa horietan, azpi-

frakzionatutako eskemek, dosi altuko eskemek besteko sintomen paliazioa erakutsi dute (15). Tratamendu erregimenen arteko desberdintasunak azalarazteko asmoarekin, aurrean aipatutako Lester et al-en errebisio sistematikoaren eguneratzea egiten zuen meta-analisi bat argitaratu zen 2015ean (16). Azterketa honek 1-2 frakziodun dosi txikiko tratamenduek, dosi altuko eskemek besteko sintomen arintzea sortzen zutela berresten zen. Aipagarria zen, hala ere, 2 frakziotan emandako 17 Gy-ko tratamenduak bizkar-muina lesionatzeko arriskuaren areagotzea zekarrela; hori zela eta, tratamenduaren diseinua egiterako orduan arreta jarri behar zitzaison. Meta-analisi berak, bestetik, nahiz eta Fairchild et al.-ek (13) egoera funtzional onean zeuden pazienteengan (PS 0-1) aurkitutako dosi-biziraupen luzatzearen arteko erlazioa sendotu, erradioterapia dosi handiagoak erradiazio ondoriozko ospitaleratzeen intzidentziaren hazkuntzarekin erlazionatu zuen. Hala ere, meta analisiaren barne zeuden ikerketen heterogeneotasunagatik ezin izan zen dosi altuko tratamenduek biziraupenean duten inpaktua aztertzeko analisi estatistikoa burutu.

Abantaila eta desoreken arteko oreka hau bizi itxaropen oso mugatua duen paziente batengan lortu behar da. Horregatik, frakzio askotako eskema terapeutikoek (tratamendu sesio gehiagoko eskemek) tratamendua betetzeko zaitasunak sor ditzakete; bai pazientea dosi guztiak jaso baino lehen hiltzen delako zein gaixoaren egoera okerragotzearen ondorioz ospitalera mugitzeko zaitasunak sor daitezkelako. Guzti horrek pazienteen %22a erradioterapia tratamendu egokiena jaso baino lehenago hiltzea ekar dezake berarekin (17). Tumorearen estadio aurreratu (III edo IV estadioetan), egoera funtzional txar eta tumoreak eragindako sintoma moderatuarriak dituzten pazienteen biziraupena egun-astekoa izan daiteke. Horren ondorioz, euskarri neurriak aukera terapeutiko eraginkorrenak izan daitezke paziente hauengan (18).

Aurrekoari eutsiz, mediku arduradunak paziente bakoitzari egokitutako modalitate terapeutikoa preskibatzeko lagungarri izan daitezken faktore aurreikusgarriak aurkitzeko hainbat ikerketa egin dira. Literaturan pazientearen egoera funtzionala (PS) faktore aurreikusgarri garrantzitsuena bezala biltzen da (18). Gainera, pazientetik eratorritako beste faktore batzuk biziraupenaren aldaketarekin erlazionatuak izan dira: pisu zein gose galera eta birikietako funtzioa (17). Horietaz gain, tumorearen beraren faktoreek (N edo M estadioa) zein faktore analitikoen (C

proteina erreaktibo maila altuek zein leukozitosiak) pazientearen bilakaeran eragina dutela dirudite (19)(20). Pazientearen adinak, ostera, ez dirudi gaixo hauengan eragin pronostikoa duenik, nahiz eta tratamendua preskibatzerako orduan profesional askok oso kontutan izaten duten (20).

Arrisku-onura oreka eta tratamenduaren preskripzio egokia bateratzeko intentzioarekin, Ameriketako Onkologia Erradioterapiko Elkarteak (ASTROk) 2012an birikako minbiziaren tratamendu paliatibo erradioterapikorako oinarriak biltzeko adostasun-deklarazia argitaratu zuen (21). Horretan, tratamendua aukeratzeko unean berebiziko garrantzia duten hurrengo faktoreak aipatzen dira: tumorearen estadioa, pazientearen PSa, birikietako funtzioa, erradiaazio bolumena, sintomatologia, pisu galera eta pazientearen nahia. Preskibatze dosiei dagokienez, eta aurrean aipatutako ebidentzia zientifikoan oinarrituz, PS ona (0-1) duten gaixoengan dosi altuagoko frakzio eskemak erabili daitezkela dio (30Gy-ko 10 frakziotan edo are altuagoak). PS txarragoa edo bizi-itxaropen murritzagoa duten pazienteengan, ostera, frakzio bakarreko edo biko terapiak hobesten dira.

Adostasun-deklarazia argitaratu arren, Rodrigues et al.-ek (22) onkologo erradioterapeutikoei egindako inuesta batek profesionalen artean tratamendua aukeratzerako orduan aldakortasun handia zegoela jakinarazi zuen; batez ere faktore geografiko eta ospitale bakoitzeko faktore logistikoen ondorioz. Gainera, medikuek ez zuten tratamendu-eskema bera aukeratzen; pazientearen arabera oso dosi-erregimen desberdinak preskribatzen zituztelako.

Honengatik guztiarengatik, gure ikerkuntzak eguneroko praktika klinikoan paziente bakoitzari egokitutako erradioterapia-erregimena preskribatzeko profesionalei lagungarriak izan ahal zaizkien faktore edo tresna berriak gehitu nahi ditu. Horretarako, azterlan honen helburua ZETBMA duten pazienteen biziraupenean edo kontrol loko-erregionalean eragina izan ditzaketen pazientearen zein erradioterapia tratamenduaren faktore klinikorik dagoen aztertzea izango da. Horrela, pazienteari hobekien egokitutako tratamendua aukeratzeko faktore aurreikusgarriak gehitu nahi ditugu, pazientearen bizi kalitatea hobetuz ahalik eta eragin kaltegarri gutxien eraginez.

## 2. LANAREN HIPOTESI ETA HELBURUAK

Erradioterapia ZETBMaren tratamendu paliatiborako baliabide terapeutiko eraginkorra da. Tratamenduak norbanakoarengan izango duen eraginkortasuna zehaztuko duten faktore aurreikusgarriak badaude.

Helburu nagusia: ZETBMaren tratamendu erradioterapiko paliatiboaren erabilitako dosi eta biziraupenaren arteko erlazioaren azterketa.

Bigarren mailako helburuak: Pazientearen biziraupenean eragina izan dezaketen baldintzatzaile kliniko eta tratamendutik eratorritako faktoreak aztertzea, tratamendu erradioterapiko eraginkorra diseinatzeko faktore aurreikusgarri bezala erabili daitezkenak. Gaixotasunaren lekuko progresiorik eta /edo urruneko progresiorik gabeko biziraupenaren analisi deskriptiboa.

## 3. MATERIAL ETA METODOAK

2013ko urtarriletik 2018ko urrira bitartean, Virgen del Rocío Unibertsitate-Ospitaleko eta Gurutzetako Unibertsitate-Ospitaleko Onkologia Erradioterapikoko Sailek edukitako birikako minbizidun ondoz ondoko pazienteak hautatuak izan ziren zentro anitzeko datu-base prospektibo bat sortzeko. Datu base honek aipatutako epean zehar ospitale horietako Birika Minbiziko Onkologia Batzordeek erabakita Onkologia Erradioterapikoko sailetara bidaliak izan ziren paziente guztiak biltzen zituen. Ikerketa honetarako, hurrengo inklusio-irizpideak betetzen zituzten pazienteak aukeratu ziren: 18 urte edo gehiagoko pazienteak, tumore primarioa zelula ez txikiko birikako minbicia izatea, estadio mugatu-aurreratuak (IIA, IIIA/IIIB) eta metastasikoa (IV), lekuak (birikan) gaixotasunaren progresioa zutenak, erradioterapia izatea tumorea intentzio paliatiboarekin tratatzeko hautatua izan zen modalitatea (kimioterapia sekuentzialarekin edo konkomitantearekin osatua edo ez) eta baimen-informatua ulertzeko eta idatziz emateko gaitasuna izatea. Esklusio-irizpideak, bestetik, haerdunaldia eta aurretiko erradioterapia torazikoa jasotzea izan ziren. Ikerketa hau Helsinkiko aitorpenak ezarritako arau eta oinarri etikoak jarraituz gauzatu da. Virgen del Rocío Unibertsitate-Ospitaleko eta Gurutzetako Unibertsitate-Ospitaleko etika batzordeek azterketa hau egiteko onarpena eman dute.

### 3.1 TRATAMENDU AURREKO PAZIENTEEN AZTERKETA

Aldez aurretik aipatutako irizpideak betetzen zituen pazienteei, lehen kontsultan historia kliniko osoa eta azterketa fisiko zehatza egin zitzaien. Historia klinikoan hurrengo datuak batzen ziren: birikako gaixotasun buxatzale kroniko (BGBK) aurrekariak, diabetes mellitus diagnostikoa (DM, American Diabetes Accosiation-en irizpide diagnostikoek definitua (23)), kardiopatiak, gertakari tronboenbolikoak, tumoreak eragindako lehen sintoma, tabakismoa (pakete/urtetan neurtua: egunero erretzen dituen zigarroak, erretzen daramatzan urteengatik biderkatuak, zati 20) eta gehiegizko alkohol kontsumoa (eguneko 30gr alkohol baino gehiago gizonengan eta 20gr emakumeengan). Bestalde, azterketa fisikoan paziente bakoitzak tratamendua aurretik izandako pisu galera eta hemoglobina zifra (g/dL) biltzen ziren.

Aurrekoaz gain, lehen kontsulta horretan paziente guztienei performance status-a kalkulatu zen Karnofsky eskala erabiliz. Horretaz gainera, pazienteak bere gaixotasunaren gainean duen pertzepcio subjetiboa neurtzeko *European Organisation for Research and Treatment of Cancer* (EORTC)-ek sortutako galdeketa bat betetzea eskatu zitzaien, QLQ-C30-a, eta birikako minbizirako galdeketa honen bertsioa, LC-13-a (24). Ondoren, bizi-kalitateak biziraupenean duen eragina aztertu ahal izateko nahiarekin.

Bizi-kalitatea oso kontzeptu subjetiboa da, pazienteak bere buruaz duen pertzepcioaren araberakoa baita. Horregatik, elkartea desberdinek bizi kalitatean eragina duten faktoreak kuantifikatzen saiatzen hainbat galdeketa sortu dituzte. Paziente onkologikoan gehien erabiltzen den tresna *European Organization for Research and Treatment of Cancer Quality of Life Questionnaire- Core 30* (EORTC QLQ-C30)-ek sortutako galdeketa da. Haren azken bertsioak, 3.0.-ak, 30 item biltzen ditu. Horretako, item horiek modu honetara azpi-sailkatzen ditu: 5 eskala funtzional (fisikoa, profesionala, kognitiboa, emozionala eta soziala), beste 3 sintomen eskala (nekea, mina, goragale/gorakoak) osasun/bizi kalitateari buruzko eskala bat eta minbizia duten pazienteengan ohikoak diren sintomak aztertzen dituzten beste item batzuk (arnasestua, gose galera, lo-ezina, idorreria eta beherakoa), gaixotasunak duen inpaktu ekonomikoaren pertzepcioarekin batera (**I.ERANSKINA**). LC-13-ak birikako minbizia duten pazienteengan ohikoak diren 10 sintoma aztertzen ditu:

arnasestua, eztula, hemoptisia, ahoko mina, disfagia, neuropatia periferikoa, burusoiltasuna, min torazikoa, beso zein sorbaldako mina eta beste leku bateko mina (**II.ERANSKINA**).

Mediku erantzuleak, tumorearengandik eratorritako sintomak arintzeko tratamendu erradioterapikoaren egokitasuna aztertu ostean eta datu basea osatzeko datu bilketa egin ostean, tratamendua diseinatu zuen. Horretarako, simulaziorako ordenagailu bidezko tomografia axiala (OTA) egin zen departamentuko araudian oinarrituz. Lesio tumoralaren inguratzea Erradiazio Unitate eta Neurrien Nazioarteko Batzordeak ezarritako gomendioak jarraituz egin zen. Erradiazio-bolumena, oro har, lesio primarioak sortutako gaixotasun makroskopikoa eta/edo kaltetun birika-hiloko zein mediastinoko adenopatiak izan zen, 0.5-1 cm-ko marjina automatikoarekin. QUANTEC-en nazioarteko gomendioak jarraituz (25), mediku preskribatzailea inguruko arrisku-organoengan ahalik eta erradiazio dosi txikiena ezartzen saiatu zen: birikako ehun osasuntsuan, bihotzean, hestegorrian eta bizkar-muinean. Organo horietan ezarritako dosiak datu-basean erregistratuak izan ziren.

Datuenean bilketa, ikerketa osatzen zuten bi zentruetako on-line plataforma bidezko Datu Bilketarako Koadernoen (DBK) bitartez egin zen. Horietan, pazienteen tratamenduan zeharreko eta ondorengo jarraipenean eta kontrolean bildutako datuak modu prospektiboan gehitzen joan ziren.

### **3.2 TRATAMENDUAN ZEHARREKO ETA ONDORENGO PAZIENTEEN JARRAIPENA**

Tratamenduan zehar pazienteak astero aztertuak izan ziren bi ospitaleetako Onkologia Erradioterapiko Sailako kanpo-kontsultetan; eta behin tratamendu erradioterapikoa amaituta, hiru hilabetean behin. Erradiazioak eragindako toxikotasun akutu eta kronikoak CTCAE criteria-ren 4.0. bertsioa jarraituz bildu ziren: esofagitisa, pneumonitisa edo kardiopatia. Toxikotasun akutu bezala definitzen da RT tratamendua amaitu osteko lehen hiru hilabeteetan agertzen diren albo-ondorioak; eta toxikotasun kronikoak, ostera, hiru hilabete horien ostean gertatutakoak. Jarraipenean zehar tumorearen lekuko zein urrutiko berreritze-datak batu ziren, gaixotasunaren kontrol loko-erregionala eta gaixotasunaren progresio gabeko epea aztertzeko.

Biziraupen orokorraren azterketa Kaplan-Meier-en kurben erkaketaren bitartez egin da. Biziraupena kalkulatzeko, tratamendu erradioterapikoa amaitu zenetik pazientearen heriotza unera arte (arrazoia edozein zela ere) edo pazientearen jarraipenean dauagun azken berrira arte igarotako denbora erabili izan da.

Erradioterapia amaitu ostetik pazienteen jarraipenean jatorrizko lesioaren leuko berreritze-erradiologikoa ikusi arte pasatutako denbora, leuko kontrol eta leuko gaixotasun gabeko biziraupen bezala definitua izan da. Tratamendu ostetik urrutiko gaixotasun metastasikoa erradiologia bidez hauteman arteko denborari, osterak, gaixotasun metastasiko gabeko biziraupena deitu zaio.

### **3.3. ATZERAKA BEGIRAKO BEHAKETA- IKERKUNTZARAKO PAZIENTEEN HAUTAKETA**

Ikerketa hau lehen aipatutako datu-basea osatzen zuen populaziotik abiatutako atzera-begirako behaketarako azpi-azterketa bat da. Sortzez datu-basea osatzen zuten 775 pazienteetatik, 61 aukeratu ziren hurrengo inklusio-irizpideak jarraituz: lehen kontsulta ulertzeko eta betetzeko gaitasuna duten 18 urte edo gehiagoko pazienteak, zitologia edo biopsia bidez ZETBM diagnostikoa dutenak, metastasitik gabeko estadio mugatu-aurreratuen daudenak (IIA,IIIA/IIIB) edo IV estadioan, tumorearen leuko progresioaren ondoriozko sintomak dituztenak; eta intentzio paliatiboarekin soilik tratatutako pazienteak (50 Gy baino gutxiagoko dosiak) VMAT, 2D edo 3D tekniken bitartez.

Esklusio-irizpideen artean ez daude kimioterapia edo ebakuntza bezalako beste baliabide terapeutikoak jaso izana, betiere intentzio paliatiboarekin eginak izan badira.

### **3.4. ANALISI ESTATISTIKOA**

Aldagai kuantitatibo jarraiengaten analisi deskribatzailea egiteko, mediana eta balio-tartea erabili ziren. Aldagai kualitatibo dikotomikoak azaltzeko, osterak, maiztasunak eta ehunekoak. Pazienteen biziraupenaren azterketa Kaplan-Meier-en kurbak erkatuz egin zen.

Aldagai klinikoek (adinak, generoak, tumorearen estadioak, Karnosfky indizeak (KI), bizi-kalitateari buruzko EORTC QLQ-C30 eta LC-13 galdeketetan lortutako emaitzek, tratamendu aurretiko hemoglobina mailak eta pisu galerak) eta tratamendutik eratorritako aldagaiak (erradiazio dosiak, RT teknikak, KT eta kimioterapia erregimenek edo kirurgia erabili izanak) pazienteen biziraupen orokorrean duten eragina aztertu da.

Aldagai kuantitatiboen analisi estatistikoa egiteko ebaki-puntuaz ezartzeko, literaturan aldagai horiek RT jasotzen duten pazienteen pronostikoarekin aurkitutako harremanetan oinarritu gara: adina, pakete-urteak, KI, bizi-kalitateari buruzko galdeketen emaitzak, tratamendu aurreko hemoglobina mailak eta RT dosiak (26)(27)(28)(29).

Aldagai horiek biziraupen orokorra aurreikus dezaketen aztertzeko Cox-en aldagai bakarreko erregresio logistikoa erabili zen. Azterketa honetan  $P<0,1$  emaitza lortu zutenen faktoreengan, aldagai anitzeko analisia erabili zen, aldagai independienteak diren aztertzeko.

Esangura estatistikoa 0,05 baino txikiagoko p-aiz definitua izan zen. Azterketa estatistikoa egiteko Gizarte Zientziarako Estatistika-Paketea erabili zen (SPSS-ren 23.0. bertsioa).

## 4. EMAITZAK

### 4.1. PAZIENTEEN, TRATAMENDUAREN ETA EGINDAKO JARRAI PENAREN EZ AUGARRIAK

#### 4.1.1. Pazienteen ezaugarriak

Jatorrizko datu basea osatzen zuten pazienteetatik, aurrean aipatutako inklusio-irizpideak betetzen zituzten 61 paziente hautatu ziren; ondoren, haien analisi estatistikoa egiteko. Paziente horien oinarrizko ezaugarriak **1.Taulan** ikus daitezke.

**1.Taula.** Ikerketa osatzen duten pazienteen oinarrizko ezaugarri klinikoak

| Pazienteen ezaugarriak | Pazienteak, n=61 |
|------------------------|------------------|
|------------------------|------------------|

|   |                    |
|---|--------------------|
| <b>Adin mediana (rango)</b>                           | 75 urte (42-88)    |
| <65 urte  | 9 (15)             |
| 65-75 urte  | 22(36)             |
| >75 urte  | 30 (49)            |
| <b>Generoa gizonezko/emakumezkoa n(%)</b>             | 54(88.5) / 7(11.5) |
| <b>Erretzailea n(%)<sup>a</sup></b>                   | 57 (93.4)          |
| Egunean erretzailea                                   | 22 (36.1)          |
| Erretzaile ohia                                       | 35 (57.4)          |
| Inoiz ez  | 4 (6.6)            |
| <b>Pakete-urte mediana (rango)</b>                    | 67 (0-150)         |
| <b>Aurrekari patologikoak n(%)</b>                    |                    |
| Gehiezgizko alkohol kontsumoa                         | 17 (27.9)          |
| Tronboenbolismo aurrekariak                           | 8 (13.1)           |
| Tratamendua aurretikо pisu galera                     | 26 (42.6)          |
| <b>Tratamendu aurretikо Karnofsky indizea n(%)</b>    |                    |
| <70   | 14 (23)            |
| ≥70   | 47 (77)            |
| <b>Sintoma nagusia n(%)</b>                           |                    |
| Hemoptisia  | 13 (21.3)          |
| Min torazikoa   | 13 (21.3)          |
| Sintomarik ez   | 11 (18)            |
| Arnasestua  | 8 (13.1)           |
| Eztula  | 6 (9.8)            |
| Besteak <sup>b</sup>                                  | 10 (16.4)          |
| <b>Tratamendua aurreko hemoglobina mediana (g/dL)</b> | 12.4 (7.5-16.4)    |
| <i>(rango)</i>  |                    |
| ≥12   | 32 (58)            |
| <12   | 23 (42)            |

<sup>a</sup> Egunean erretzaileak eta erretzaile ohiak.

<sup>b</sup> Beste sintomen barnean daude: astenia, disfagia, gastritis, pisu galera, sibilantziak edo sinkopea.

**1.Taulan** ikusi dezakegunez, gure populazioak zuen adinaren mediana 75 urtekoa zen eta jendearen %85ak 65 urte baina gehiago zituen; beraz, populazioa nahiko nagusia eta batez ere gizonezkoek osatua (%88.5). Gure pazienteen gehiengoa erretzailea zen edo izan zen (%93.4). Horretaz gain, haien osasunean eragin nabarmena zeukaten beste gaixotasunak ohikoak ziren gure pazienteengan: BGBK 30(49.2%), DM 24(39.3%) edo kardiopatia 23(37.7%). Hala ere, gure

pazienteen %23ak soilik zuen 70 puntu baino gutxiagoko emaitza tratamendua baino lehenagoko Karnofsky indizean. Horren arabera, tratamendu aurretik gure pazienteen %77a eguneroko oinarrizko jarduerak egiteko burujabea zen.

Erradioterapia paliatiboa jasotzea, pazienteek zitzuten sintoma nagusiak hemoptisia 13(%21.3) eta min torazikoa 13(%21.3) izan ziren. Deigarria irudi dakiguke pazienteen %18k tumore primariotik eratorritako sintomak ez izanagatik tratamendu erradioterapiko paliatiboa jasotzea. Paziente hauek, gaixotasunaren leku progresio erradiologikoa zeukan; eta tumorearen estadioarengatik zein haien egoera funtzional edo komorbilitateengatik, sendatzeko intentzioa duten tratamenduak jasotzea ezintasuna zeukan.

Tratamendua jaso zuten pazienteen tumorearen estadioaren zein azpimota histologikoaren informazioa biltzen du **2.Taulak**. Datu hauek lehendanik aipatutako pazienteen oinarrizko ezaugarriekin bat datozi. Izan ere, gure pazienteen artean ZETBMaren azpimota epidermoidea zen gehien agertzen zena 37(%60.7), erretzearekin estuki lotua dagoena. Tumorearen estadioei zegokienez, pazienteen gehiengoa (%97) tumorearen estadio mugatu-aurreratuan aurkitzen zen (III-IV), intentzio paliatibodun tratamendua jasotzea paziente egokiak bilakatuz.

## 2. Taula. Pazienteen tumoreen oinarrizko ezaugarriak eta estadioak.

| Tumorearen ezaugarriak             | Pazienteak n=61 |
|------------------------------------|-----------------|
| <b>Azpi-mota histologikoa n(%)</b> |                 |
| Epidermoidea                       | 37 (60.7)       |
| Adenokartzinoma                    | 16 (26.2)       |
| Zelula handikoa                    | 3 (4.9)         |
| Zehaztugabea <sup>a</sup>          | 5 (8.2)         |
| <b>Tumorearen estadioa n(%)</b>    |                 |
| IIA                                | 2 (3.3)         |
| IIIA                               | 30 (49.2)       |
| IIIB                               | 14 (22.9)       |
| IV                                 | 15 (24.6)       |

<sup>a</sup> Biopsia egina eta informatua baina ZETBMaren barnean azpimota zehaztugabea.

#### **4.1.2. Tratamenduaren ezaugarriak eta eratorritako toxikotasunak**

Paziente horiek jasotako tratamenduari dagokionez, eta inklusio irizpideak betez, ikerketa honetako paziente guztiak RT paliatiboa jaso izan zuten tratamendu prozesuan zehar. Erabaki hau betiere ospitale bakoitzeko diziplina anitzeko Tumore Batzordeek erabaki izan zuten. Jasotako dosiaren mediana 39 Gy-koa izan zen (12-50 Gy-ko balio -tartea), 13 sesioko medianarekin (2-28 sesio); 3D teknika izanik mediku arduradunek gehien erabili zutena (54 pazienterengan, paziente guztien %88.5a).

Erradioterapiaz gain, 34 pazientek (%55) beste tratamendu modalitate bat jaso izan zuten haien tratamendu paliatiboaren barnean. KT izan zen RTrekin batera gehien erabili izan zen tratamendua, 33 pazienterengan erabilia izan baitzen.; orokorrean KT ostean RT sekuentziala erabiliz (27 paziente, paziente guztien %37.7a). Latinoan oinarritutako eskema izan zen gehien erabili zena, bakarrik zein konbinatuta; bost pazienterengan izan ezik, hauengan hurrengo farmakoak erabili izan ziren: paclitaxel, pemtrexed, nivolumab, docetaxel eta gemcitabina. Paziente bakar batek RT aurreko kirurgia jaso izan zuen tratamendu osagarri bezala.

Erabilitako tratamenduen eta pazienteek jasotako dosien gaineko informazioa **3.Taulan** laburtua agertzen da, tratamendutik eratorritako toxikotasunak **4. Taulan** bilduta dagoen bitartean.

#### **3.Taula. Pazienteek jasotako tratamenduak eta dosien laburpena**

| Tratamendua eta dosia   | Pazienteak n=61 |
|---|-----------------|
| <b>Tratamendu paliatiboa n(%)</b>                             |                 |
| RT soilik   | 27 (44.3)       |
| KT+RT   | 33 (54.1)       |
| KT konkomitantea  | 6 (10)          |
| Kirurgia+ Rt lagungarria                                      | 1 (1.6)         |
| <b>Pazienteek jasotako dosien (Gy) mediana (balio-tartea)</b> | 39 (12-50)      |

#### **4.Taula. Tratamendutik eratorritako toxikotasun akutu eta kronikoen laburpena**

| Toxikotasun motak | n (%) |
|-------------------|-------|
|-------------------|-------|

| <u>Akutua</u>            |                        |
|--------------------------|------------------------|
| <b>Esofagitisa n=60</b>  | 24 (40) <sup>a</sup>   |
| I-II graduak             | 21 (87.5) <sup>b</sup> |
| III-IV graduak           | 3 (12.5)               |
| <b>Pneumonitisa n=60</b> | 23 (38.3)              |
| I-II graduak             | 14 (60.9)              |
| III-IV graduak           | 9 (39.1)               |
| <b>Kardiopatia n=60</b>  | 1 (1.7)                |
| <u>Kronikoa</u>          |                        |
| <b>Esofagitisa n=61</b>  | 4 (6.6)                |
| I-II graduak             | 4 (100)                |
| <b>Pneumonitisa n=57</b> | 16 (28.1)              |
| I-II graduak             | 8 (50)                 |
| III-IV graduak           | 8 (50)                 |
| <b>Kardiopatia n=61</b>  | 1 (1.6)                |


<sup>a</sup> % Ikerketa osatzen duten paziente guztiakiko (61)

<sup>b</sup> % Toxikotasun hori pairatu izan duten paziente guztiakiko

Taulan ikus ditekenez, ezin izan ditugu paziente guztien toxikotasunak bildu.


**4.Taulan** ikus dezakegunez, pazienteek gehien pairatutako toxikotasun akutua esofagitisa izan zen 24(%40), pneumonitisak estuki jarraituz 23(%38.3). Esofagitis akutu guztiak, 21 I-II gradutakoak izan ziren, hau da, esofagitis akutuen %87.5a; eta soilik 3 pazientek III-IV gradutako gaixotasuna jasan zuten (%12.5). Pneumonitisaren kasuan, ostera, ez dago hainbestearainoko ezberdintasunik toxikotasun graduen artean. Izan ere, 14 pazientek I-II gradutako toxikotasuna izan zuten (%60.9), III-IV gradutako 9 pazienterekin konparatuta (%39.1). Taulan agertzen den kardiopatia akutu kasua, tratamenduaren ondoriozko arritmia bat izan zen. Toxikotasun akutu kasuak **1.Irudian** aurkezten dira.

**1.Irudia. Tratamendutik eratorritako toxikotasun akutuen laburpena.** Esofagitisa eta pneumonitisa larritasunaren arabera sailkatuak agertzen dira (I-II graduak // III-IV graduak) CTCAE eskalaren 4.0 bertsioaren arabera.



Toxikotasun kronikoaren kasuan, pneumonitisa izan zen gehien antzeman zen toxikotasuna. Guztira 16 pazientek (paziente guztien %28.1a) pairatu izan zuten tratamenduaren ondoriozko pneumonitisa; esofagitisa, kontrara, 4 pazientek soilik izan zuten (paziente guztien %6.6a). Pneumonitis kroniko guztien kasuen erdia (8 kasu) I-II gradutakoak izan ziren, beste erdia III-IV gradutakoak. Esofagitisa kasu guztiak, ostera, I-II gradutakoak izan ziren. Tratamendutik eratorritako kardiopatia iskemiko kasu bat gertatu zen. Toxikotasun kroniko kasuak **2.Irudian** adieraziak daude.

**2.Irudia. Tratamendutik eratorritako toxikotasun kronikoen laburpena.** Esofagitisa eta pneumonitisa larritasunaren arabera sailkatuak agertzen dira (I-II graduak // III-IV graduak) CTCAE eskalaren 4.0 bertsioaren arabera.



**5.Taulan** tratamendu aurretik pazienteek bizi-kalitateari buruzko QLQ-C30 eta LC-13 galdeketetan lortutako emaitzak ikusten dira. Bizi-kalitate orokorraren (GHS) mediana 66koa izan zen (0-100). Eskala funtzionalei dagokienez, funtzionaltasun orokorraren/profesionalaren (RF), funtzio sozialaren (SF) eta funtzio fisikoaren (PF) mediana 66koa izan zen (0-100). Funtzio emozionalaren (EF) mediana 75ekoa izan zen (0-100), eta egoera kognitiboarena (CF), ostera, 100ekoa (0-100).

Pazienteen bizi-kalitatean inpaktu handiena zeukaten sintomak nekea, lo-ezina eta eztula ziren; 33ko puntuazio medianarekin (0-100). Minak eta arnasestuak 16 eta 11ko medianak izan zitzuten hurrenez hurren (0-100).

**5.Taula. Tratamendu aurretik pazienteek bizi- kalitateari burzko QLQ-C30 eta LC-13 galdeketetan lortutako emaitzak.**

| Bizi-kalitatearen galdeketako itema | Emaitzak (mediana eta balio-tartea) |
|-------------------------------------|-------------------------------------|
| <b><u>QLQ-C30</u></b>               |                                     |
| GHS (Global health score)           | 66 (0-100)                          |
| <b>Eskala funtzionalak</b>          |                                     |
| RF (role functioning)               | 66 (0-100)                          |
| EF (emotional functioning)          | 75 (0-100)                          |
| CF (cognitive functioning)          | 100 (0-100)                         |
| SF (social functioning)             | 66 (0-100)                          |
| PF (physical functioning)           | 66 (0-100)                          |
| <b>Sintomen eskalak</b>             |                                     |
| Nekea                               | 33 (0-100)                          |
| Goragalea                           | 0 (0-100)                           |
| Mina                                | 16 (0-100)                          |
| Arnasestua                          | 0 (0-100)                           |
| Lo-ezina                            | 33 (0-100)                          |
| Gose galera                         | 0 (0-100)                           |
| Idorreria                           | 0 (0-100)                           |
| Beherakoa                           | 0 (0-66)                            |
| Zailtasun ekonomikoa                | 0 (0-100)                           |
| <b><u>LC-13</u></b>                 |                                     |
| Arnasestua                          | 11 (0-100)                          |
| Eztula                              | 33 (0-100)                          |
| Hemoptisia                          | 0 (0-100)                           |


|                            |           |
|----------------------------|-----------|
| Ahoko mina                 | 0 (0-100) |
| Disfagia                   | 0 (0-100) |
| Neuropatia periferikoa     | 0 (0-100) |
| Burusoiltasuna             | 0 (0-100) |
| Min torazikoa              | 0 (0-100) |
| Beso edo sorbaldako mina   | 0 (0-100) |
| Mina beste lekuren batetan | 0 (0-100) |

\*GHS eta eskala funtzionaletan lortutako emaitzek pazientearen egoerarekin erlazioa positiboa daukate, hau da, emaitza altuagoek pazientearen egoera hobea dela adierazten dute. Bestalde sintomen eskaletan eta LC-13 galdeketan lortutako emaitzek pazientearen afekzioarekin dute erlazioa, eta puntuazioa altuagoek pazientearen egoera kaxkarragoa adierazten dute.

#### 4.1.3. Pazienteen jarraipena


Pazienteei egindako jarraipenaren mediana 6 hilabeteko izan zen (0.1-55 hilabete), 10.8 hilabeteko biziraupen medianarekin (%95eko konfiantza tartea (K.T.) 5.2-16.4 hilabete). RT amaitu osteko 6,12 eta 24 hilabeteko epera pazienteen biziraupen orokorra %58.5koa, %42.5koa eta %28.4koa izan ziren, hurrenez hurren. Datu hauetan ikus dezakegu ZETBMak biziraupen orokorrean duen eraginaren garrantzia, **3.Irudian** aurkeztua.

**3. Irudia. Kaplan-Meier-en biziraupen orokorraren kurba, RT amaitu osteko hilabetetan neurta.**




Lekuko berreritzera (LB) arte igarotako hilabeteen mediana 17.4koa izan zen (%95eko K.T. 0-42.1 hilabete); lekuko gaixotasunik gabeko pazienteen portzentajeak 6,12 eta 24 hilabetera hurrengoa izanik: %77.4, %55.4 eta %48.5 (**4. Irudia**). Urruneko berreritzera (UB) arte igarotako denboraren mediana 17.4 hilabeteko izan zen baita ere (%95eko K.T. 4.6-30.3 hilabete); pazienteen % 74.1a urruneko gaixotasunik gabe egonda 6 hilabetera, %59.3a 12 hilabetera eta %39.3a 24 hilabetera (**5.Irudia**).

**4. Irudia. Kaplan-Meier-en LB gabeko denboraren kurba, RT amaitu osteko hilabetetan neurtua.**




**5. Irudia. Kaplan-Meier-en UB gabeko denboraren kurba, RT amaitu osteko hilabetetan neurtua.**



Gaixotasunik gabe igarotako denborak, hau da LB eta UB gabeko denborak, 7.6 hilabeteko mediana izan zuen (%95eko K.T. 4.7-10.5 hilabete). RT amaitu ostean 6 hilabetera gaixotasunik gabe dauden pazienteen ehunekoa, %56.3koa da; bereziki adierazgarria izanez gaixotasunak bilakaeraren lehen bi urteetan duen eragina (pazienteen %27 gaixotasunik gabe 2 urteko epera). Pazienteek jarraipenean zehar gaixotasunik gabe igarotako hilabeteen kurba irudikatua **6.Irudian**.

**6. Irudia. Kaplan-Meier-en gaixotasunik gabeko denboraren kurba, RT amaitu ostean hilabetetan neurtua.**



#### **4.2. ALDAGAI TERAPEUTIKOEK ETA TRATAMENDUAREN ALDAGAIEK BIZIRAUPENEAN DUTEN ERAGINAREN ANALISIA**

Hasteko, pazienteen biziraupenean eragina izan dezaketen faktore kliniko eta terapeutiko aurreikusgarrien aldagai bakarreko azterketa egin zen Cox-en erregresio logistikoaren bitartez. Analisi estatistiko horretan aldagaietako lortutako emaitzak azaltzen dira **6.Taulan**.

**6.Taula. Cox-en erregresio logistikoari esker faktore kliniko-terapeutikoak aldagai bakarreko azterketaren emaitzen laburpena.** Biziraupen denboraren mediana eta K.T.-ak hilabetetan adierazita eta erregresio logistikoaren p-ren balioa.

| Aldagai kliniko eta terapeutikoak     | Paziente zenbakia (n) | Biziraupen denboraren mediana | %95eko K.T. | p balioa       |
|---------------------------------------|-----------------------|-------------------------------|-------------|----------------|
| <b>Aldagai Klinikoak</b>              |                       |                               |             |                |
| <b>Adina (urteak)</b>                 |                       |                               |             |                |
| <65                                   | 9                     | 10.8                          | 3.1-18.5    |                |
| 65-75                                 | 22                    | 12.9                          | 1.6-24.3    | p=0.75         |
| >75                                   | 30                    | 10.6                          | 3.7-17.4    |                |
| <b>KI</b>                             |                       |                               |             |                |
| <70                                   | 14                    | 6.6                           | 4.7-8.4     |                |
| ≥70                                   | 47                    | 10.8                          | 4-17.6      | p=0.5          |
| <b>Erretzailea</b>                    |                       |                               |             |                |
| Egunean erretzailea                   | 22                    | 5.8                           | 3.7-8       |                |
| Erretzaile oihia                      | 35                    | 13                            | 6.4-19.5    | p=0.3          |
| Inoiz ez                              | 4                     | 6.5                           | 2.8-10.2    |                |
| <b>Pakete-urte</b>                    |                       |                               |             |                |
| ≤30                                   | 10                    | 5.8                           | 3.6-8.1     |                |
| 31-75                                 | 24                    | 11.9                          | 4.7-19      |                |
| >75                                   | 27                    | 11.5                          | 5.2-16.4    | p=0.5          |
| <b>Hemoglobina (g/dL)</b>             |                       |                               |             |                |
| <12                                   | 23                    | 11.2                          | 1-21.4      |                |
| ≥12                                   | 32                    | 10.8                          | 2-19.6      | p=0.85         |
| <b>Tratamendu aurreko pisu galera</b> |                       |                               |             |                |
| Ez                                    | 35                    | 10.6                          | 4.5-16.6    |                |
| Bai                                   | 26                    | 11.5                          | 3-20        | p=0.8          |
| <b>Gehiegizko alkohol kontsumoa</b>   |                       |                               |             |                |
| Ez                                    | 44                    | 10.6                          | 4.4-16.7    |                |
| Bai                                   | 17                    | 12.1                          | 0-25.4      | p=0.76         |
| <b>BGBK</b>                           |                       |                               |             |                |
| Ez                                    | 31                    | 6.5                           | 0-14.5      |                |
| Bai                                   | 30                    | 11.5                          | 8-14.7      | p=0.52         |
| <b>DM</b>                             |                       |                               |             |                |
| Ez                                    | 37                    | 8.18                          | 1.7-14.6    |                |
| Bai                                   | 24                    | 11.2                          | 4.5-17.9    | p=0.9          |
| <b>Kardiopatia</b>                    |                       |                               |             |                |
| Ez                                    | 38                    | 6.6                           | 0.5-12.6    |                |
| Bai                                   | 23                    | 11.9                          | 8.9-14.9    | p=0.2          |
| <b>Gertaera tronboenbolikoak</b>      |                       |                               |             |                |
| Ez                                    | 53                    | 11.2                          | 4.8-17.6    |                |
| Bai                                   | 8                     | 4.3                           | 0-12        | p=0.75         |
| <b>Tumorearen estadioa</b>            |                       |                               |             |                |
| II/III                                | 46                    | 12.1                          | 9.7-14.6    |                |
| IV                                    | 15                    | 2.2                           | 0.9-3.5     | <b>p=0.009</b> |
| <b>Bizi-kalitatea</b>                 |                       |                               |             |                |
| <b>Funtzio fisikoa (PF)</b>           |                       |                               |             |                |
| ≤33.3                                 | 9                     | 1.3                           | 0-2.8       |                |
| 33.3-66.6                             | 17                    | 11.5                          | 3-20.1      | <b>p=0.001</b> |
| >66.6                                 | 32                    | 13.3                          | 3-23.5      |                |
| <b>Nekea</b>                          |                       |                               |             |                |
| ≤33.3                                 | 16                    | 8.2                           | 0-40.4      |                |
| 33.3-66.6                             | 24                    | 11.2                          | 10-12.5     |                |
| >66.6                                 | 18                    | 5.4                           | 3-7.9       | p=0.49         |
| <b>Goragalea</b>                      |                       |                               |             |                |
| ≤33.3                                 | 52                    | 10.6                          | 5.16.2      | p=0.55         |

|                               |    |      |           |                |
|-------------------------------|----|------|-----------|----------------|
| 33.3-66.6                     | 6  | 11.9 | 0-25.3    |                |
| >66.6                         | 1  | 4.5  | -         |                |
| <b>Mina</b>                   |    |      |           |                |
| ≤33.3                         | 34 | 11.2 | 3-19.4    |                |
| 33.3-66.6                     | 15 | 8.2  | 0.6-15.8  | p=0.54         |
| >66.6                         | 10 | 5.3  | 5.4-16.3  |                |
| <b>Arnasestua (QLQ-C30)</b>   |    |      |           |                |
| ≤33.3                         | 26 | 11.5 | 9.2-13.8  |                |
